

MADRIL-IRUÑEA HARREMANAK. Posadak eta Sanzek bi administrazioen arteko elkarlana defendatu dute

Nafarroak European Espainiarekin bat egon behar duela esan du Sanzek

«Espainiarekiko leialtasuna» aldarrikatu du Posadas ministroarekin eginiko bileran

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Europako Batasunak Nafarroako gai bat tratatzen duenean Nafarroak «Espainiarekin batera Europako erakundeetan egotea» eskatu dio Miguel Sanz Nafarroako presidenteari Jesus Posada Espainiako Administrazio Publikoetarako ministroari. Biek Madril eta Iruñeko administrazioen arteko elkarlana defendatu dute, eta hori «Espainiarekiko leialtasunean» oinarrituko dela erantsi du Sanzek.

Miguel Sanz Nafarroako presidentea Jesus Posada Espainiako Administrazio Publikoetarako ministroarekin bildu zen atzo goizean Iruñean. Nafarroako Jauregian eginiko bileran PPreneko Gobernuak prestatzen ari den Autonomi Kooperaziorako Lege Orokorraz mintzatu ziren bi politikariek.

Ildo berean, Miguel Sanzek Jesus Posadasen bisita aprobeztatu zuen Europako Batzordean Nafarroako eskumenei zuzenean dagokien gairen bat eztabaidatzeko. Presidenteak gogoratu zion Europako Batzordeak auzitan jarri dituela Nafarroako fiskalitatearen eremu batzuk.

Hori dela eta, Sanzek uste du «Europako Batasunarekin erkidego batek arazorik izatean, gaiari dagokion ministroarekin batera erkidego horretako ordezkari batek joan behar duela Europara» afera defendatzera. Dena dela, presidenteak argi utzi zuen UPNren helburua ez dela Europara bakarrik joatea. «Ez gara Europara Espainia gabe joanen, baizik eta Espainiarekin. Nafarroa leial zaio Espainiako batasunari, argi dugu lako erkidegoetako gobernuak Estatuaren parte direla», gaineratu zuen bileraren ondotik bi mandatariek eskainiriko prentsaurrekoan.

Bestalde, Sanzek zein Posadasek azpimarratu zuten bi administrazioen arteko elkarlanak bultzatzeko eta bideratzeko Kooperazio Batzordea dela biderik egokiena. «Kooperazio batzordea bi administrazioen artean sortzen diren eskuduntzen garapena arazotzeko eta bideratzeko gune egokia da», aldarrikatu zuen bileraren ondotik Sanzek.

Elkarlana, ezinbestekoa

Ildo berean, Jesus Posadasek «politikoki dezentralizatua da goen Espainia bezalako estatu



JOXE LACALLE

Miguel Sanz Nafarroako lehendakaria eta Jesus Posada ministro espainiarra, atzo, Iruñean.

MADRIL-GASTEIZ HARREMANAK

Posadas: «Batzorde berezia ez da bidea»

Jesus Posada Espainiako Administrazio Publikoetarako ministroak Madrilek Euskal Autonomi Erkidegoarekin (EAE) dituen harremanak ere izan zituen mintzagai. Ildo honetan, Juan Jose Ibarretxeren Gobernuak EAERI dagozkion eskumenak eztabaidatzeko eratu nahi duen batzorde berezia ez dela egokia adierazi zuen. «Errezeloak saihesteko prest gaude, baina goi mailako batzorde berezia ez da bide egokia eskumenak negoziatzeko», azaldu zuen.

Era berean, EAEko Gobernuak Madrilgoare-

kiko dituen «errezeloak» ez dutela oinarririk argudiatu zuen ministroak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskuduntzak ez daudela arriskuan adierazi zuen. «Errezeloak ez dute oinarririk eta ez dute zertan egon. Ez dago inolako ahalegin politikorik eskuduntzak berreskuratzeko ez eta kontrolatzeko», azaldu zuen.

Ildo honetan, Espainiako Gobernuak Gasteizkoarekin eskuduntzen inguruan mintzatzeko «prest» dagoela azpimarratu zuen, baina betiere EAEko Gobernuak egun ezarritako araudia errespetatzen baldin badu. «Prest nago oraindik transferitu gabe dauden eskuduntzen inguruan hitz egiteko, baina, betiere, Espainiako Konstituzioaren eta Estatuaren araudiak errespetatuz egiten bada», azpimarratu zuen.

batean elkarlana ezinbestekoa» dela azpimarratu zuen. Ministroaren aburuz, PPreneko Gobernuak Espainiak gehiengo absolutua izan arren, ezin du elkarlana behartzen duen lege bat egin. Hori dela eta, PPreneko Go-

bernua prestatzen ari den Autonomi Kooperaziorako Lege Orokorra erkidegoei helarazi nahi omen zaie «eztabaida irekien bidez eta Senatuan egin diren saioen bitartez».

Ildo berean, Kataluniako Ge-

neralitateak aipaturiko legearen zirriborroari egin dizkion kritikek ez dutela «zentzurik» adierazi zuen. Posadasek azpimarratu zuen Madrilek ez duela «eskumenik berreskuratu edo kendu nahi».



Bihar

barkatu
ama

Egunkaria

Globalizazioaren aurkako hitzak

Kukutza gaztetxea, tinko segitzeko borrokan

Udazkeneko kontzertuak, Legen Beltza, Nekez...

Amaiur Alfarori elkarriketa

...zure independentzia

